

## XXIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

### Otoitza

Jainko Jauna, Zuk gaituzu salbatzen  
eta zeure seme-alabatzat hartzen;  
ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak,  
eta Kristorengan sinesten dugunoi  
emaguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 35, 4-7a

*Gorren belarriak zabalduko dira,  
eta mutuaren mihiak oihu egingo du pozez.*

Isaias Profetaren liburutik

Esan bihotz beldurtiei:  
«Gora bihotzak! Ez izan beldurrik!  
Badator Jaungoikoaren mendekua,  
Jaungoikoaren saria.  
Bera etorriko da, eta salbatuko zaituzte».  
Orduan itsuen begiak irekiko dira,  
eta gorren belarriak zabalduko.  
Orduan herrenak basauntzak bezala jauzi egingo du,  
eta mutuaren mihiak oihu egin pozez;  
urak sortuko baitira basamortuan  
eta errekek eremuan.  
Lur errea aintzira bihurtuko da,  
eta lur egarritua, iturri.

ERANTZUN SALMOA: Sal 145, 6c-7ab. 7c-8. 9-10

R/. **Goretsazu Jauna, ene barrena.**

Edota **Aleluia.**

Leiala da betiren beti,  
ematen die eskubidea zapaldui,  
ogia gose direnei. R/.

Atxilotuak Jaunak askatzen ditu,  
itsuen begiak Jaunak argitzen ditu.  
Konkor daudenak Jaunak ditu zutiarazten,  
zintzoak Jaunak ditu maitatzen. R/.

Arrotzak Jaunak ditu zaintzen,  
 umezurtz eta alargunak laguntzen,  
 eta gaiztoen asmoak eragozten.  
 Errege izango da Jauna sekuletan,  
 zure Jainkoa, Sion, menderen mendetan. R/.

## II. IRAKURGAIA: St 2, 1-5

*Jaungoikoak ez al ditu, bada, behartsu direnak aukeratu,  
 erreinuaren oinordeko izan daitezzen?*

Santiago Apostoluaren epistolatik

Ene senideok: Ez egin gizakien bereizkuntzarik, Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuaren sinesmenean. Egin dezagun, zuen batzarrean sartzan dela norbait urrezko eraztun eta soineko distiratsuz jantzita; eta behartsu bat ere sartzan dela, zarpail. Eta zuek, soineko distiratsua daramanari begiratu eta esaten diozuela: «Eseri zu hemen aurrean»; behartsuari, berriz, esaten diozuela: «Zaude hor zutik», edota «eseri hemen lurrean, nire oinetan». Ez al da hori, zuen artean bereizkuntza egitea eta zeuen buruak iritzi okerreko epaile bihurtzea?

Entzun, ene senide maiteok: Jaungoikoak ez al ditu, bada, munduarentzat behartsu direnak aukeratu sinesmenean aberats izateko, eta Bera maite dutenei agindu dien erreinuaren oinordeko izan daitezzen?

EBANJELIOA: Mk 7, 31-37

**Aleluia:** Ik. Mt 4, 23

R/. Aleluia.

V/. Jesusek erreinuko berri ona hotsegiten zuen,  
 eta gaitz guztiak sendatzen zituen herrian. R/.

*Gorrei entzunarazi die,  
 eta mutuei hitz eginarazi.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesus, Tiroko lurraldea utzita, Sidondik igaro zen, eta Dekapolisen barrena Galileako itsasora etorri zen.

Gorra eta hizmotela zen gizon bat ekarri zioten; eta eskuak gainean ezartzeko eskatzen zioten. Jesusek jende artetik bereiz harturik, behatzak belarrietan sartu zizkion, eta bere listuz mihia ukitu zion. Zerura begira, intziri eginez, esan zion: «Effetá»—hau da: «Ireki zaitez»—. Eta berehala ireki zitzaizkion belarriak, eta mihiko lotura askatu, eta hizketan hasi garbi-garbi.

Inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina haiek orduan eta gehiago zabalitzen zuten.

Eta harriturik, honela zioten: «Ondo egiten du dena: gorrei entzunarazi, eta mutuei hitz eginarazi».

## Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, bakearen eta egiazko maitasunaren iturria,  
 iguzu, eskaintza honekin zure handitasuna gorets dezagula

eta, sakramentu hau harturik,  
gogo leialez Zurekin bat egin dezagula.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jauna, zure fededunak hitzaren eta sakarmentuaren janariaz  
hazten dituzu eta biziberritzen;  
emaguzu, zure Seme maitearen dohain handiz baliaturik,  
beti Berarekin bat eginik bizitzea.  
Errege bizi baita.